



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko maiatzaren 19a

54. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-26/PRO-00008. Foru-lege proposamena, zeinak xede baitu aldatzea 26/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-26/ITP-00022. Interpelazioa, hondakinen kudeaketaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (5. or.).

—11-26/ITP-00023. Interpelazioa, zerga-politikari buruzkoa. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak egin du (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-26/POR-00173. Galdera, jakiteko ea nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari laguntza zuzenik emanen zaion krisi energetikotik heldu diren gainkostuak arintzeko. Irene Royo Ortín andreak egin du (7. or.).

—11-26/POR-00174. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer egingen duen egun alokairu-araubidekoak diren Testa Residencialen etxebizitzak salduko omen direla-eta. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (7. or.).

—11-26/POR-00175. Galdera, unibertsitate-bekak lortzeko errenta-atalaseak igotzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (8. or.).

—11-26/POR-00176. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren euskarazko eskaintza akademikoari buruzkoa. Oihana Gallo San Román andreak egin du (9. or.).

—11-26/POR-00177. Galdera, administrazio-araubidean aldi baterako kontratatutako pertsonen egoerari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (9. or.).

—11-26/POR-00178. Galdera, hondakinen kudeaketari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (10. or.).

—11-26/POR-00179. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko kontratuaren esleipeneko kontu-hartzaile nagusiaren txostenari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (10. or.).

- 11-26/POR-00180. Galdera, Sendaviva kasua dela-eta aurkeztutako kereilaren aurreko erantzukizunari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (11. or.).
- 11-26/POR-00181. Galdera, terrorismoaren biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko forulegearen aurreproiektuari egindako ekarpenei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (11. or.).
- 11-26/POR-00182. Galdera, Nafarvide enpresa publikoari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (12. or.).
- 11-26/POR-00183. Galdera, Europako Next Generation funtsekin kudeatutako turismo-planen kontrol- eta gardentasun-ezari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).
- 11-26/POR-00184. Galdera, funtzio publikoaren estatutu berriaren negoziazioari buruzkoa. Ramón Alzoriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- 11-26/POR-00185. Galdera, Hiruko Ituna izenekoa sinatzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (13. or.).
- 11-26/POR-00186. Galdera, Hezkuntzako kontseilaria kargutik kentzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- 11-26/POR-00187. Galdera, gobernantza-ereduari eusten dioten printzipioei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (14. or.).
- 11-26/POR-00188. Galdera, 2026-2027 ikasturterako hezkuntza-plangintzari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (15. or.).
- 11-26/POR-00189. Galdera, Rozalejoko markesaren eraikinaren obren benetako egoerari eta hura inauguratzeko aurreikusten den datari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (15. or.).
- 11-26/POR-00190. Galdera, nafarrek zerga-sistemari eta gastu publikoari dagokienez lehentasuna izateari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (16. or.).
- 11-26/POR-00191. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obretan 2025eko maiatzetik aurrerako obra-ziurtagiriak aurkaratu izanari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-26/PRO-00008. Foru-lege proposamena, zeinak xede baitu aldatzea 26/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Irene Royo Ortín andreak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena aurkeztu du, eta eskatu du irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Agintzea Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea aldatzea xede duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

**2.** Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

**3.** Foru-lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru-lege proposamena, zeinak xede baitu aldatzea 26/2016 Foru Legea, abenduaren 28koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa**

**ZIOEN AZALPENA**

Foru-lege honen xedea da aldatzea Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea, zerga horren eraginpean dauden entitateei aplikatzekoa zaien zerga-tasa orokorrari dagokionez.

Sozietateen gaineko Zergaren araudian hainbat egokitzapen egin izan dira ingurune ekonomikoaren bilakaerari erantzute aldera, eta bermatze aldera dagoen zerga-esparruak modua ematen duela finantza-nahikotasunaren, segurtasun juridikoaren eta lehiakortasun ekonomikoaren printzipioak uztartzeko Nafarroako Foru Komunitatearen zerga-eskumen berekiak baliatzean.

Testuinguru horretan, kontuan izan behar da Estatuan indarrean dagoen Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra ehuneko 25ekoa dela, eta, hori horrela, foru-esparruan aplikatzekoa den tasa berrikustea komeni dela, enpresen zergapetzean ez dadin desorekarik sor, eragina izan ahal duenik Nafarroako enpresek beste lurralde batzuetan finantza daudenezikiko duten lehia-posizioan.

Era berean, egungo egoera ekonomikoak agerian uzten du zerga-ingurune egonkor, garbi eta aurreikusgarri bat aldeztu beharra dagoela, enpresei modua emanen diena beren jarduerari behar bezala planifikatzeko, eta enpresen inbertsiorako, hazkunderako eta egokitzapenerako ahalmena sendotuko duena, enplegua mantentzen eta sortzen lagunduz horrela. Sinplea eta ingurunearekin lerrokaturik den zerga-sistema bat elementu garrantzitsua da enpresa-ehundura sendotzeko eta jarduerari ekonomikoari sustatzeko.

Hori guztia dela-eta, foru-lege honen bidez sinplifikatu egiten da Sozietateen gaineko Zergaren zerga-tasa orokorraren konfigurazioa, halako moldez non ehuneko 25eko tasa bakarra ezartzen baita, eta hura aplikatzeko ezarritako eskakizun gehigarriak desagerrarazten baitira. Aldaketa honekin, araudia argitzen da, karga administratiboak murrizten dira eta Nafarroako enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen da, estatu-ingurune fiskalarekin koherentzian eta foru-komunitateko zerga-sistemaren egonkortasun- eta nahikotasun-helburuei kalte egin gabe.

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako eraginez, aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 51. artikulua –Kargatasak– 1.a) letra, zeinak honako testu hau izanen baitu:

«a) Ehuneko 25».

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-26/ITP-00022. Interpelazioa, hondakinen kudeaketaren arloko politika orokorrari buruzkoa**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako interpelazioa, hondakinen kudeaketaren arloko politika orokorrari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, hondakinen kudeaketaren arloko politika orokorrari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroak hondakinak kudeatzeko politika aurreratu garatzen du, ekonomia zirkularrean eta mota guztietako hondakinen prebentzioan, berrerabilpenean eta birziklapenean oinarritua, hiriko, industriako, abeltzaintzako, nekazaritzako eta industriako hondakinak barne. Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Planak neurri espezifikoak ezartzen ditu ingurumen-inpaktua murrizteko eta baliabideen aprobetxamendua sustatzeko, balorizazio eta tratamendu jasangarriko sistemen bidez. Gainera, Hondakinei buruzko Foru Legeak osasun publikoa eta ingurumena babesten dituen kudeaketa arduratsua bultzatzen du, eta minden, simaurren eta nekazaritzako elikagaien azpiproduktuen tratamendu egokia ere sustatzen du. Politika horiei esker, bilketa berezitan eta birziklapenean emaitzarik onenak dituzten erkidegoen artean dago Nafarroa, jasangarritasunarekiko eta trantsizio ekologikoarekiko konpromisoa indartuta.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Foru-parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **11-26/ITP-00023. Interpelazioa, zerga-politikari buruzkoa**

### *UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak egindako interpelazioa, zerga-politikari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zerga-politikaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroaren zerga-politikari buruzko hausnarketa politikoa egin beharra dago, herritarrek, gure autonomoek eta enpresek jasaten duten presio horrek merezi ote duen baloratzeko, gobernu honek egiten duen kudeaketa ez baita eraginkorra.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-26/POR-00173. Galdera, jakiteko ea nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari laguntza zuzenik emanen zaion krisi energetikotik heldu diren gaitzesak arintzeko***IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, jakiteko ea nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari laguntza zuzenik emanen zaion krisi energetikotik heldu diren gaitzesak arintzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera aurkezten du Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Krisi energetikotik heldu den kostuen igoera etengabea ikusita, Nafarroako Gobernuak laguntza zuzeneko zer neurri onetsiko du nekazariak eta abeltzainek jasaten dituzten gaitzesak konpentsatzeko?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 10ean

Foru-parlamentaria: Irene Royo Ortín

**11-26/POR-00174. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer egingen duen egun alokairu-araubidekoak diren Testa Residencialen etxebizitzak salduko omen direla-eta***MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer egingen

duen egun alokairu-araubidekoak diren Testa Residencialen etxebizitzak salduko omen direla-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi argitaratutako informazioen arabera, Blackstone funtsak parte hartzen duen Testa Residencialek gogoan darabil salgai jartzea gaur egun Nafarroan alokairura bideratuta dauden eta jatorrian laguntza publikoarekin bultzatutako etxebizitza babestuak ziren etxebizitzak.

Balizko operazio horrek ehunka pertsonari eragingin lioke, eta eragin handia izanen luke Nafarroako alokairuko etxebizitza-parkean, bizitegi-tentsio handiko eta etxebizitza eskuratzeko gero eta zailtasun handiagoko testuinguru batean.

Hori dela-eta, honako galdera hau aurkezten dut, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer informazio du Nafarroan Testa Residencialeko etxebizitzen balizko salmentari buruz, eta zer jarduketa ari da balortzen alokairu ordainerrazeko parke gisa jarraituko duela bermatzeko?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

---

## **11-26/POR-00175. Galdera, unibertsitate-bekak lortzeko errenta-atalaseak igotzeari buruzkoa**

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, unibertsitate-bekak lortzeko errenta-atalaseak igotzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan maiatzaren 12an, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen handitu egingen zirela unibertsitate-bekak eskuratzeko errenta-atalaseak.

Zer onura ekarriko die neurri horrek gure erki-degoko unibertsitateko ikasleei?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Foru-parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## 11-26/POR-00176. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren euskarazko eskaintza akademikoari buruzkoa

*OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak egindako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren euskarazko eskaintza akademikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru-parlamentari Oihana Gallo San Román andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuari eskatzen dio ahozko galdera honi erantzun diezaion.

Azken urte hauetan Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarazko eskaintza akademikoa urria izan dela kontuan hartuta, honako ahozko galdera erantzutea eskatzen da.

Zer egiteko asmoa du Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak afera honi dagokionez?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Foru-parlamentaria: Oihana Gallo San Román

## 11-26/POR-00177. Galdera, administrazio-araubidean aldi baterako kontratatutako pertsonen egoerari buruzkoa

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, administrazio-araubidean aldi baterako kontratatutako pertsonen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garridok, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako kontseilariak maiatzaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zein egoeratan geratzen dira Nafarroako administrazio publikoek administrazio-araubidean aldi baterako kontratatuak izan diren eta behin-behinekotasunean abusua jasan duten pertsonak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2026ko apirilaren 14ko epaiarekin bat etorritik Auzitegi Gorenaren Lan Arloko Salaren Osoko Bilkurak 2026ko maiatzaren 11n emandako epaiaren ondoren?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Miguel Garrido Sola

**11-26/POR-00178. Galdera, hondakinen kudeaketari buruzkoa***CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, hondakinen kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua zer neurri hartzen ari da Nafarroako Foru Komunitateko hondakinen kudeaketari begira?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Carlos Mena Blasco

**11-26/POR-00179. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko kontratuaren esleipeneko kontu-hartzaile nagusiaren txostenari buruzkoa***MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Belateko tunelak bikoizteko kontratuaren esleipeneko kontu-hartzaile nagusiaren txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Belateko tunelak bikoizteko kontratua esleitzeari begira kontu-hartzaile nagusiaren txostenari kasu egin zeniotela esan zenuen. Esandakoa berresten al duzu?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **11-26/POR-00180. Galdera, Sendaviva kasua dela-eta aurkeztutako kereilaren aurreko erantzukizunari buruzkoa**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Sendaviva kasua dela-eta aurkeztutako kereilaren aurreko erantzukizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

2026ko maiatzaren 21eko Osoko Bilkurarako galdera arrunta.

Nafarroako Gobernuko lehendakari andrea

Zuk edo zure Gobernuko norbaitek erantzukizunik hartuko al du bere gain epaitegi batek Sendaviva kasua dela-eta kereila izapidetzeko onartu eta gero, kasu horretan zure Gobernuko kontseilari bat eta zure talde parlamentarioko parlamentari bat inplikaturik baitaude?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-26/POR-00181. Galdera, terrorismoaren biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko foru-legearen aurreproiektuari egindako ekarpenei buruzkoa**

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, terrorismoaren biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko foru-legearen aurreproiektuari egindako ekarpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz informatuko du terrorismoaren biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko foru-legearen aurreproiektuari egindako ekarpenei buruz, zeinak parte-hartze prozesuan egin baitziren? Izan ere, horiei buruz informatzeko epea preskribatuta dago.

Nafarroan, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

**11-26/POR-00182. Galdera, Nafarbide enpresa publikoari buruzkoa***YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, Nafarbide enpresa publikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, beharrezkoa al da Nafarbide enpresa publikoa mantentzea?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

**11-26/POR-00183. Galdera, Europako Next Generation funtsekin kudeatutako turismo-planen kontrol- eta gardentasun-ezari buruzkoa***ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako Next Generation funtsekin kudeatutako turismo-planen kontrol- eta gardentasun-ezari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak neurririk hartuko al du Europako Next Generation funtsekin toki-ekintzako taldeek kudeatutako turismo-planen kontrol eta gardentasun falta zuzentzeko?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **11-26/POR-00184. Galdera, funtzio publikoaren estatutu berriaren negoziazioari buruzkoa**

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak egindako galdera, funtzio publikoaren estatutu berriaren negoziazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuak estatutu berria dela-eta egindako lana ikusita (hura aurkeztu, mahai orokorrera eraman eta zuzenketak aurkezteko espazioa ireki):

Zertan da funtzio publikoaren estatutu berriaren negoziazio hori?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

---

## **11-26/POR-00185. Galdera, Hiruko Ituna izenekoa sinatzeari buruzkoa**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Hiruko Ituna izenekoa sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru-parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu-ko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Olo Hualde andreak maiatzaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gaur bertan, maiatzak 14, Hiruko Ituna izenekoa sinatu dute Nafarroako Gobernuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren ordezkariak.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari: Zer dakar Foru Komunitatearentzat akordio hori sinatzeak?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 14an

Foru-parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **11-26/POR-00186. Galdera, Hezkuntzako kontseilaria kargutik kentzeari buruzkoa**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Hezkuntzako kontseilaria kargutik kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak maiatzaren 21eko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Lehendakari andrea, Hezkuntza Departamentuaren azken porrotaren ondoren, noiz kenduko duzu Gimeno kontseilaria kargutik?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 17an

Foru-parlamentaria: Javier García Jiménez

## **11-26/POR-00187. Galdera, gobernantza-ereduari eusten dioten printzipioei buruzkoa**

*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gobernantza-ereduari eusten dioten printzipioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariari zuzendua, 2026ko maiatzaren 21eko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

Egungo Nafarroako Gobernua gobernantza-eredu baten inguruan egituratzen da. Zein printzipiok eusten diote eredu horri?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Foru-parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## 11-26/POR-00188. Galdera, 2026-2027 ikasturterako hezkuntza-plangintzari buruzkoa

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2026-2027 ikasturterako hezkuntza-plangintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak 2026ko maiatzaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Joan den ostegunean, Nafarroako Parlamentuak, UPNren, PPren eta Voxen aldeko botoekin eta EH Bilduren eta Geroa Bai-ren abstentzioekin, hezkuntza-plangintzaren arloko foru-lege proposamen bat onetsi zuen.

Foru-lege proposamenak zenbait agindu beteazle ezartzen ditu, 2026-2027ko ikasturterako Nafarroako hezkuntza-sistemaren plangintza nabarmen baldintzatzen dutenak.

Foru-lege proposamen hori onetsi ondoren, zer egoeratan geratzen da Hezkuntza Departamentuaren hezkuntza-sare publikoko hezkuntza-plangintza 2026-2027 ikasturterako?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-26/POR-00189. Galdera, Rozalejoko markesaren eraikinaren obren benetakako egoerari eta hura inauguratzeko aurreikusten den datari buruzkoa

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Rozalejoko markesaren eraikinaren obren benetakako egoerari eta hura inauguratzeko aurreikusten den datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru-parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollo Hualdek datorren maiatzaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela hilabete batzuk Rozalejoko markesaren eraikinaren obrez hitz egin genuen, bisita parlamentario baten ondoren. Bisita horretan, eraikinaren berritzea oso aurreratuta zegoela egiaztatu genuen. Gaur-gaurkoz, gutxienez kanpotik, badirudi erreforma amaituta dagoela.

Hori dela eta, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari galdetzen diogu: zein egoeratan daude obra horiek eta noizko aurreikusten da inaugurazioa?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Foru-parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

---

## **11-26/POR-00190. Galdera, nafarrek zerga-sistemari eta gastu publikoari dagokienez lehentasuna izateari buruzkoa**

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, nafarrek zerga-sistemari eta gastu publikoari dagokienez lehentasuna izateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

2026ko maiatzaren 21eko Osoko Bilkurarako gaurkotasun handiko galdera.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria:

Nafarroako Gobernuak nafarrei lehentasuna emateko asmoa al du zerga-sistemari eta gastu publikoari dagokienez?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 15ean

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-26/POR-00191. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obretan 2025eko maiatzetik aurrerako obra-ziurtagiriak aurkaratu izanari buruzkoa**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Belateko tunelak bikoizteko obretan 2025eko maiatzetik aurrerako obra-ziurtagiriak aurkaratu izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik ezkutatu zenigun joan den maiatzaren 6an Lurralde Kohesiorako Batzordean egindako agerraldian Belateko tunelak bikoizteko obren ABEEak 2025eko maiatzetik aurrerako obra-ziurtagiri guztiak aurkaratu dituela?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 18an

Foru-parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea





